

Hezkuntza Sareak



2011-2012 ikasturtea

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Aurkibidea

Hezkuntza sareak

- aurkezpena 4
- konpromisoak 5
- baldintza orokorrak 6

Amara Berri

- Amara Berri sistema 8
- helburuak 9
- sarearen ezaugarriak 10
- ezarpenaldiak 11
- ikastetxeak 12



Ikas komunitateak

- definizioa eta printzipioak 14
- dinamika 15
- ikastetxeak 17



Kalitatea Hezkuntzan

- definizioa eta helburuak 19
- ezaugarriak 20
- sareko ibilbidea 21
- ikastetxeak 22



Hezkuntza sareak

Gaur egun, **gauzak antolatzeko modurik inportanteena** bilakatu dira sareak, eta norabide berri bat eman diete gizartearen jarduerari, orokorrean, eta ikastetxeen jarduerari, bereziki.

Hezkuntza-sareak egitura intentzionalak dira, eta **interes-helburu partekatuak** dituzte; egitura horietan, kide guztiek dute berdintasunean lan egin eta ardurak hartzeko aukera. Horrek sano batzen du taldea, konfiantza areagotzen du, eta harreman egokiak indartzen ditu.

Sareetan sortzen diren antolamendu-egiturek **aukera ematen dute profesionalak ikasteko**; era berean, kudeaketa- eta zuzendaritza-premiak antzematen laguntzen dute.

Sareek aldaketak errazten dituzte, eta lidergotza erabili eta erantzukizunak partekatzeko bidea eskaintzen dute; izan ere, **hainbat lagunen artean banatzen da lidergoa**, nork bere eginkizunak dituela.

Eskoletan aldaketa esanguratsuak egiteko, pizgarriak, laguntzak eta exigentziak neurri berean batu behar dira; horrez gain, **planifikatutako estrategia** ere behar da. Sareek aukera ederra eskaintzen dute ahaleginak, baliabideak eta planak bateratzeko

Hori dela eta, sareak sustatuta, Hezkuntza Sailak hau lortu nahi du:

- 🔗 Etengabeko ikaskuntza ikaskuntza eraginkortzat jota, etengabeko ikasuntzaren ideia hezurmamitzea.
- 🔗 Lankidetzaren bultzatzea, profesionalak argi eta garbi azal dezaten zer uste duten eta nola lan egiten duten; horrela, berrikuntzak eurak sortzen diren tokitik harago zabalduko dira.
- 🔗 Ikastetxe osoarentzako proiektu orokorrak babestea, ikasleen emaitzak hobetzeko.
- 🔗 Irakasleen profesionaltasuna, esperientzia- trukeak, prestakuntza-jarduerak, etab., bultzatzea.

Konpromisoak

Hona hemen sare batean dauden **ikastetxeek** hartzen dituzten konpromisoak:

- 📄 Ikastetxeen arteko koordinazio-, prestakuntza- eta truke-bileretan parte hartzeko, ikastetxearen beraren praktikak azaldu, eta hausnarketak partekatuz. Koordinatzaileek egiazaturik (% 80).
- 📄 Sare bakoitzak zein lan mota, tresna eta metodologia definitu, horiek gelan erabiltzeko.
- 📄 Materialak, esperientziak, bisitak, ponentziak... partekatzeko.
- 📄 Sarean komunikatzeko ezartzen diren plataformetan modu aktiboan parte hartzeko .
- 📄 Sare bakoitzaren berezko prestakuntza-ibilbidea egiteko.
- 📄 Sare bakoitzak zein komunikazio-egitura sistematizatu, egitura horiek ikastetxean antolatzeko.

Hezkuntza Sailak konpromiso hauek hartzen ditu sareren baten parte hartu nahi duten ikastetxeekin:

- 📄 LPZn, gehigarritzko kreditua eman, hitzarmenean jasotako baldintzekin, proiektu globaleko ikastetxeetan.
- 📄 Dotazio ekonomikoa jarriko du, sareko koordinazio-jardueretan parte hartzea finantzatzeko. Proiektuaren prestakuntza- eta berrikuntza- alderdiak finantzatzeko deialdi bat egingo du beren beregi helburu horiek finantzatzeko.
- 📄 Proiektuaren funtsezko elementuen eta sartzen diren berrikuntzen inguruko prestakuntza, laguntza eta jarraipena.
- 📄 Sareen arteko komunikazioa erraztuko du.

Baldintza orokorrak

Sare baten sartzeko balditza orokorrak ondorengoak dira:

- 📄 Gutxienez, klaustroaren % 80k onartu behar ditu proiektua bera eta proiektuak eskatzen dituen konpromisoak.
- 📄 Ikastetxeko OOGk onartu behar du.
- 📄 Eskabidea, ereduaren arabera, idatziz aurkeztu behar da Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzan.
- 📄 Ikastetxeak zuzendaritza-proiektua izatea baloratuko da.
- 📄 Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzaren onarpena.
- 📄 Ikastetxeen sareko jarraipena ebaluazio- eta jarraipen-prozesuei lotuta egongo da. Bai ikastetxeek bai Administrazioak baloratu ahal izango dute, egokia den ala ez, esandako jarraipena.



amara berri
S I S T E M A

Amara Berri



- 📌 Proiektu orokorra da; ikastetxeari batasuna ematen dio. Horren inguruan biltzen dira hezkuntza-jarduera guztiak.
- 📌 Metodologiak ikasle bakoitzean jartzen du arreta, eta bizitzarako trebetasunak garatzen laguntzen die.
- 📌 Ikasten ikastea, harremanak, komunikazioa eta praktikaren gaineko hausnarketak sustatzen ditu.
- 📌 Ikasle, irakasle eta familiek taldean lan egitea eta elkarri laguntzea bultzatzen du.
- 📌 Hezkuntza-komunitatea bera eta bertako lagunak garatzea nahi du.
- 📌 Metodologia sistemikoa denez, kontuan hartzen ditu gizarteak XXI. menderako jartzen dituen erronka berriak.



- ↳ Proiektu orokorra bultzatzea
- ↳ Ikastetxeak etengabe hobetzeko prozesuak sustatu, erraztu eta babestea.
- ↳ Talde-lana garatzen duten antolamendu-egiturak sortzea, praktikaren gainean ikertu, sortu, kontrastatu eta hausnartzeko.
- ↳ Ikastetxeei behar dituzten prestakuntza, aholku eta tresna guztiak ematea, metodologia- eta antolamendu-aldaketak martxan jartzeko.
- ↳ Orokortasunetik abiatuta garatzea egiturak, eremu guztiak biltzeko eta eskola-komunitate osoak parte hartu ahal izateko.
- ↳ Ikastetxeen sarea handitzea, eredugarriak izango diren pedagogia-praktika onak eta antolamendu- eta kudeaketa-praktikak jasota.
- ↳ Esparru berean lan egiten duten ikastetxeetako lana batzea, ikastetxeen banakako prozesuak errentagarriak izan daitezen talde-lanean.
- ↳ Irakasleak etengabe prestatzea.



📌 Ikastetxeen lankidetzan oinarritutako proiektua da, eta lagundu egiten du ikastetxe bakoitzeko proiektua finkatu eta indartzen.

📌 Ikastetxeak egituratuago eta antolatuago dauden neurrian, sistema-ikuspegitik lagundu egiten da elementu berriak sartzen, eta sartu ere ikastetxeko proiektu orokorrari larregi eragin gabe.

📌 Ikastetxeek Amara Berri sisteman parte hartu, eta partekatzen dute; horrez gain, sarean lankidetzan ari dira.

📌 Ikastetxe bakoitzaren izaera eta nortasuna kontuan izanik, esparru komuna eratzen da, hiru ardatz partekatu dituen:

- Metodologia-planteamendua eta eskolaren ikuskera.
- Ikasleen ikuskera Pedagogia ikasleetan oinarritzen da.
- Parte hartu, inplikatu eta erantzukizunak partekatzeko printzipioak. Antolamendu-egitura oinarritzko tresna da parte hartzeko.
- Proiektu orokorraren alde egiten du apustu. Adin guztiak eta garapenaren eremu guztiak biltzen ditu.

📌 Prestatzeko era bat da:

- Ikastetxearena eta ikastetxearentzat.
- Ikastetxeak garatu egiten ditu: etengabeko ikaskuntza, aldaketak, eta talde-lanetik (“eskola egingo duen” talde-lanetik) abiatutako berrikuntzak.



Amara Berri sarean hiru ezarpenaldiak ditu. Aldi hauek batera gauzatu ahalizango dira:

1.- Sentsibilizazioaldia

- Amara Berri sistemako funtsezko elementuak ezagutzea (hitzaldi eta prestakuntza-ikastaroen bidez, sareko ikastetxeak bisitatuz eta sarearen beraren eremuetan parte hartuz - zuzendaritza-taldeak, mintegiak,...)

2.- Hausnartzealdia

- Ikastetxearen diagnostikoa:
 - Ikastetxeak azken urteotan izandako bilakaera aztertzea.
 - Egungo egoera aztertzea.
 - Hobetzeko elementuak (egitura, metodologia,...) identifikatzea

3.- Praktikan jartzeko aldia

- Metodologian eta antolatzeko moduan egin beharreko aldaketak erabakitzea. (zein irakasle eta ikasleri eragingo dien, zein eremutan ezarri, zein epetan,...)
- Ikasten lagundu eta berdinen artean lankidetzan jardutea errazten duten gizarte-testuinguruak sistematizatzea eta geletan aplikatzea.
- Irakasleak etengabe prestatzea, euren praktikak hobetzeko.
- Ikastetxeen arteko koordinazio-, prestakuntza- eta truke-bileretan parte hartzea, eta ikastetxearen beraren praktikak azaltzea, hausnaketak partekatuzeko.
- Antolamendu- eta metodologia-aldaketak orokortu eta finkatzeko prozesuak eta geletako praktikak ebaluatzea eta horien jarraipena egitea.

BIZKAIA

Allende Salazar HLHI (Gernika)
Mundaka HLHI (Mundaka)
San Frantzisko HLHI (Bermeo)
Etorkizuna Ikastola (Abanto-Zierbana)
Gorliz HLHI (Gorliz)
Landako HLHI (Durango)
Zabalarra HLHI (Durango)
Larrea HLHI (Amorebieta-Etxano)
Zelaieta HLHI (Abadiño)

GIPUZKOA

Amara Berri HLHI (Donostia)
Harri Berri-Oleta HLHI (Donostia)
Murumendi HLHI (Beasain)
Ondarreta HLHI (Andoain)
Txinkorta IP (Bidegoian)
Urdaneta HLHI (Ordizia)
Zestoako Herri Eskola (Zestoa)

ARABA

Etxaurren Ikastola (Zuhatza-Aiara)
Okondo HE (Okondo)



ikas.kom

Ikas komunitateak

Definizioa eta printzipioak



📌 Ikaskomunitatea ikastetxe bat da, helburu bikoitza duena: ikasle guztiek ahalik eta gehien ikastea eta bizikidetza egokia izatea. Hona hori lortzeko oinarria:

- Beste toki batzuetan emaitza onak ematen dituzten transformazio guztiak.
- Elkarrizketan oinarritutako ikaskuntza, hau da, egungo informazioaren gizartean garatzen ari den ikaskuntza.

📌 Ikaskomunitatea baten **printzipioak** hauek dira:

- Ikasle guztiek ikasteko gai direla onartu behar da.
- Ikastea eragiten duten elkarreraginak areagotu behar dira, eta bide eta baliabide guztiak erabili behar dira funtsezko ikasketetan mailarik gorena lortzeko.
- Komunitateak parte hartu eta lagundu egin behar du ikasle guztien ikasketak bizkortu, eta bizikidetza hobetzen.
- Berdintasunezko elkarrizketaren bidez laguntzen da.
- Kultura-aniztasuna, gaitasun-aniztasuna... aberasgarria da eta gehiago ikastea dakar, baldin eta aniztasun hori ahalik eta gehien aprobetxatzen bada.
- Komunitate-giroak zentzua eragiten du, eta lagundu egiten du ikasleen emozioak garatzen.
- Solidaritatea funtzionamendu-irizpidea da ikastetxearentzat, gelentzat eta hezkuntza-komunitate osoarentzat.



[📌 Eragile guztian laguntza](#)

Guztion arrakasta lortzeko, ahaleginak batzen ditugu komunitate osoak, familiek, irakasleek, ikasleek, boluntarioek... .

Lan-batzordeen bidez, ikastetxeko antolamenduan eta kudeaketan inplikatzeko gara; ikasgelan, talde elkarreragileen bidez; ikastetxean bertan, prestakuntza-jardueretan, eta ikastetxeko jarduera guztietan eta horien ebaluazioan.

Guztion ametsa

Komunitatea osatzen dugunon ametsa da: haur guztien eskura egotea gure seme-alabentzat nahi dugun ikaskuntza.

Eskola ideala irudikatzen dugu; aztertu egiten dugu zer aldatu behar dugun eskola hori lortzeko, eta denok laguntzen dugu, hori lortzeko.

Batzorde mistoak

Gure ametsetan aurrera egiteko, batzorde mistoak eratzen ditugu irakasleek, familiakoek, boluntarioek, ikastetxetik kanpoko profesionalek, ikasleek eta bestelako eragileek. Lehentasunak finkatu, eta lehentasun-batzorde bakoitzak, berriz, egin beharreko ekintza guztiak planifikatu eta abian jartzen ditu.

[📌 Kalitatezko ikaskuntza denentzak.](#)

Praktika batzuek ikasketak eta bizikidetzak hobetzen dituzte:

Talde elkarreragileak

Irakasleek prestatu egiten dute zer jarduera egin behar duten ikasleek boluntarioen laguntzaz. Talde bakoitzean, boluntario batek denei laguntzen die atazak egiten, elkarri laguntzen, gauzak azaltzen...

Horrela, jakintzak barneratu, eta gauzak azaldu, argudiatu eta eztabaidatzen ikasten dute; inori entzuten eta elkarri laguntzen ikasten dute.



Elkarrizketan oinarritutako berbaldi literarioak

Literatura unibertsaleko lanik onenak irakurri eta komentatu behar dituzte ikasleek. Familiakoentzat, irakasle eta bestelako eragileentzat ere antolatzen dira berbaldiak.

Elkarreraginean eta elkarrizketetan oinarritzen da berbaldiaren metodologia. Taldean, irakurgaiari buruz hitz egin, argudiatu eta hausnartzen da, eta parte hartzen dutenek ere nork bere esperientzia azaltzen dute.

Ordutegia luzatzea

Komunitateak lagunduta, ikastetxeak eskola orduetatik kanpo luzatzen du ordutegia. Hainbatek laguntzen diete ikasleei eskola-lanak egiten, irakurmena finkatzen, hizkuntzak ikasi eta teknologia berriak erabiltzen. Horrela, saihestu egiten da inork ikastorduetan gela utzi behar izatea errefortzuetarako edo errekupezioetarako.

Familiakoak prestatzea

Ikasleen ikaskuntzan eragiten du irakasleak prestatzeak eta familiakoak eta ikasleekin batera bizi garen guztiok prestatzeak. Hori dela eta, prestakuntza-saioak antolatzen dira kolektibo edo talde guztiarentzat, bakoitzaren interesen arabera; beste prestakuntza-saio batzuk, berriz, komunitate osorako dira.

BIZKAIA

Ruperto Medina LHI (Portugalete)
Artatse LHI (Bilbao)
Lekeitio LHI
San Antonio de Etxebarri LHI
Lamiako LHI
Ondarroa LHI
Mungia BHI
Maiztegi LHI (Iurreta)
Artaza Pinueta LHI (Leioa)
Virgen de la Guía LHI (Portugalete)
Ibaibe LHI (Barakaldo)
Otxartaga LHI (Ortuella)
Tomás Camacho LHI (Bilbao)
Velazquez LHI (Basauri)
Lemoiz Herri Eskola
Astrabudua DBH
Mina del Morro LHI (Bilbao)
Elejabarri LHI (Bilbao)
Deustu LHI (Bilbao)
El Casal LHI (Ortuella)

GIPUZKOA

Karmengo Ama (Pasaia)
Pedro M^ª Otaño LHI (Zizurkil)
Belaskoenea LHI (Irun)
Dunboa LHI (Irun)
Ondarreta LHI. (Andoain)
Orokietia LHI (Zarautz)
EPA Zarautz
Elatzeta LHI (Irun)

ARABA

Labastida LHI
CEIPS Calasancio (Gasteiz)
EPA Paulo Freire - Zaramaga (Gasteiz)
Aranbizkarra Ikastola LHI (Gasteiz)
IPI Sansomendi IPI (Gasteiz)



Kalitatea Hezkuntzan



📌 “Kalitatea Hezkuntzan” sareak parte hartzeko esparru sistematikoa eskaintzen du, ikastetxe bateko hezkuntza-jarduerako eremu nagusiak hobetzeko.

📌 Hona hemen esparruak:

- plangintza,
- irakaskuntza-ikaskuntza,
- ez adostasunak kudeatuta
- dokumentazioa kontrolatuta burututako ebaluazio-prozesua.

📌 «Kalitatea Hezkuntzan» sarearen **helburuak**:

- Ikastetxeak etengabe hobetzeko prozesuak sustatu, erraztu eta babestea.
- Etengabe hobetzko prozesuak arrakastaz martxan jartzeko behar den informazioa, aholkularitza eta tresnak ematea ikastetxeei.
- Hainbat eremutan praktika onak dituen ikastetxe-sarea sustatzea, ikasleen ikaskuntza etengabe bilatzen duena eta elkarri esperientzia eta ereduak trukatzeko ahalbideratzen duena.



- ✚ Misioa, ikuskera eta plan estrategikoa prestatzea eta horiek urteko plangintzan eta memorieta zehaztea, eskola-komunitate osoak parte hartzea bultzatuz.
- ✚ Curriculuma planifikatu, eta metodologia eta ebaluazioa zehazteko irakasleak erabiltzen duen koadernoak; bertan, tutore-lanaren inguruko zenbait arlo ere jasotzen dira, ikastetxea metodologia-ezaugarri jakin batzuk praktikan jartzera bultzatuko dutenak.
- ✚ Ikastetxean sartu berri diren ikasle, irakasle eta familiak hartzeko planaren plangintza; horrela, ikastetxeko hezkuntza-proiektua ezagutzera eman eta ikastetxeko parte-hartzea eta giroa hobetzen da.
- ✚ Ez adostasunetan oinarrituta jarraikako ebaluazioa egiteko sistema. Prozesu guztietan egindako lana baloratuko da, finkatutako adierazlearen arabera; horrela, hobetzeko planak zehaztuko dira.
- ✚ Lan txukuna, adostua, eraginkorra eta, azken finean, betegarriaren kultura sistematizatzea, taldean lan egitea errazten baitu.
- ✚ Sareko lanaren aberastasuna, honako hauek bultzatuz: jakintza partekatua, hausnartzen laguntzea eta ikastetxeek egin beharreko lana, lan partekatuak eragiten duen adorea, konfiantza eta segurtasuna...



1. Lehenengo aldia

- ↳ Plan estrategikoa eta urteko plana diseinatzea.
- ↳ Curriculuma (programazioa, gelako jarduerak, ebaluazioa eta tutoretza) modu adostuan biltzea.
- ↳ Ebaluazioa eta hobetzeko planak definitzea.
- ↳ Auditoretza eta ziurtagiriak.

2. Bigarren aldia

- ↳ Praktika onak dituzten programazioak eta gelako praktikak identifikatzea, eta ikastetxean aplikatzea.
- ↳ Ebaluazio- eta tutoretza-prozesuetan sakontzea: kontzeptuak, irizpide adostuak, ikasleen jarraipena, banan banakako tutoretzak...
- ↳ Beste prozesu batzuk burutzea baloratuko da: matrikula, ikastetxea antolatzea, prestatzea...

3. Hirugarren aldia

- ↳ Irakasle-lana autoebaluatzeko eta hobetu beharrekoak antzemateko tresnak sortzea.
- ↳ Prestakuntza-premiak zehaztea.
- ↳ Hobetzeko planak proposatzea.
- ↳ Sareak antzematen dituen beste premia batzuei erantzutea.

BIZKAIA

Allende Salazar LHI (Gernika)
 Anaitasuna BHI (Ermua)
 Arozena Barrueta BHI (Bermeo)
 Birjinetxe LHI (Bilbo)
 Intxixu Ikastola (Bilbo)
 Iruarteta LHI (Bilbo)
 Mukusuluba LHI (Barakaldo)
 Urritxe BHI (Zornotza)
 Zelaieta LHI (Abadino)
 Amoroto LHI
 Ispaster LHI
 Ongarai BHI (Ermua)
 Zeanuri LHI
 Learreta Markina (Berriz)
 Andra Mari LHI (Getxo)
 Barrutialde BHI (Arratzu)
 Elorrio BHI
 Juan de Orobiogoitia BHI (Iurreta)
 Lekeitio BHI
 Ondarroa BHI
 Txomin Aresti LHI (Leioa)
 Unamuno BHI (Bilbo)
 Lekeitio LHI
 Zaldupe LHI (Ondarroa)
 Arrigorriaga BHI

GIPUZKOA

San Juan LHI (Alegia)
 Aita Iparragirre LHI (Idiazabal)
 Alkartasuna Lizeoa LHI (Beasain)
 Egape BHI (Urnieta)
 Ipintza BHI (Bergara)
 Landaberri BHI (Lasarte-Oria)
 Lardizabal LHI (Zaldibia)
 Murumendi LHI (Beasain)
 Urdaneta LHI (Ordizia)
 Xabier Munibe BHI (Azkoitia)
 Zubiri Manteo BHI (Donostia)
 Zumadi LHI (Amezketza)
 San Martin de Agirre LHI (Bergara)
 Eguzkitza LHI (Irun)
 BHI Elgoibar
 BHI Langaitz (Errenteria)
 Beasain BHI
 Karmelo Etxegarai LHI (Azpeitia)
 Lizardi BHI (Zarautz)
 Mogel Isasi BHI (Eibar)
 Mogel Isasi Ikastola LHI (Eibar)
 Mutriku BHI
 Oianguren BHI (Ordizia)
 Olazabal BHI (Legazpi)
 Zuazola Larraña (Onati)
 Zumaia BHI

ARABA

Luis Dorao LHI (Gasteiz)
 Okondo HHI
 Zabalgana LHI (Gasteiz)
 Aniturri BHI (Agurain)
 Arteko Gure Ama LHI (Artziniega)